

KOSTUEN EGITURA


Gimnasioko makinez gain, enpresa gisa dugun gastu nagusia erosiko dugun lokala izango da. Lokal hori Gorlizko erdigunetik gertu egongo da, 100 m²-rekin eta 250.000 €-ko prezioarekin.

Beste gastu bat pinturan, aldaketan eta obretan izango litzateke, gure gimnasioa bihurtzeko.

Beste diru-gastu bat ingeniari bat eta gimnasio barruko zenbait monitore kontratatzean egongo litzateke. Horren prezioa aldakorra da monitoreen obraren kalitatearen eta denboraren arabera.

Argiaren eta uraren gastua modu aldakorrean ordaindu beharko litzateke, ez baitakigu zenbat erabiliko genukeen, uraren eta argiaren prezioak igoko edo jaitsiko diren ezagutzen ez dugun bezala.

Argiaren gastua, hala ere, txikiagoa izango litzateke, energia berriztagarria eta eskuzkoa izatea errazten digun mekanismo bat baitugu.



Local en plaza Iberre Barri, 11, Gorliz

250.000 €

100 m² 2.500 €/m²